

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ Imaginatu zure herriko edo hiriko jai-egitaraua sortzeko aukera daukazula. Zer aldatuko zenuke? Zein ekitaldi kenduko zenuke? Zein sartu? Sortu zeure jai-egitaraua eta azaldu ikaskideei zer aldaketa egingo zenukeen eta zergatik.
- ✓ Ia urtero sortzen den eztabaida da: aurreratu beharko lirateke Gasteizko jaiak? Aurreratuz gero, noiz ospatu beharko lirateke? Elkartu hiru ikaskiderekin. Lehenik, pentsatu zein den zuen iritzia; ondoren, prestatu iritzi hori defendatzeko zenbait argudio. Azkenik, bildu eta ekin eztabaidatzeari!

Internet aprobetxatuta

- ✓ *Askegintza* izeneko taldeak Euskal Herriko festen inguruko [erreportajea](#) argitaratu du. Lan horrek bildu du jaietan animaliak erabiltzearen inguruan inoiz egin den dokumentazio-lanik handiena. Lau urtean zehar (2014-2017), hainbat aktibistek grabatutako irudiekin osatutako dokumentala da. Ikusi¹ arretaz erreportajea eta prestatu gaiaren inguruko zeure iritzia: zer irizten diozu jaietan animaliak erabiltzeari?, zer arrazoi bururatzen zaizu zure iritzia defendatzeko? Elkartu bi ikaskiderekin, emaezu dokumentalaren berri eta eztabaidatu hiruron artean.
- ✓ Buelta gaitzen lan-unitateari izena ematen dion titulura: *Hik lan eta nik jai*. Kanta ezagun baten titulua ere bada. Musika gustuko baduzu, bila ezazu kantaren inguruko informazioa web honetan: www.badok.eus. Animatzen bazara, prestatu kantaren letra, baina hutsune batzuk jarrita. Ondoren, kanta eskolara eraman, emaezu ikaskideei kantaren berri: norena den, noizkoa, zer kontatzen duen... eta, azkenik, kanta entzun, hutsuneak bete eta, nola ez, aprobetxatu kantatzeko!
- ✓ Maddi Ane Txoperena izeneko kazetariak [Hik lan eta nik jai](#) izeneko iritzi-zutabe bat idatzi zuen *Berrria* egunkarian. Irakurri artikuluxka arretaz eta, zeure iritzia emate aldera, erantzun amaierako galderari. Iritzia prest duzunean, partekatu zure ikaskideekin, eta, animatuz gero, iritzia grabatu eta blogera igo.

¹ Erreportajeak irudi gogor samarrak ditu, mindu ahal zaituztenak.